

2015 UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

Euskara eta literatura

· **BATXILERGOA**

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2015eko EKAINA

EUSKARA ETA
LITERATURA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2015

LENGUA VASCA Y
LITERATURA

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

- *Lehenbizi TESTU bat duzu.*
- *Testu bakar honen gainean eraikiak daude bi aukerak: A eta B. Bietako bat egin behar duzu.*
- *Aukera bakoitzak hiru atal ditu:*
 - *Irakurmena*
 - *Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)*
 - *Gaia eta laburpena (2 puntu)*
 - *Hizkuntzaren/literaturaren inguruan (1 puntu)*
 - *Idazlana (5 puntu)*



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2015eko EKAINA

**EUSKARA ETA
LITERATURA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2015

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA**

UTZI NEGARREZ EGOTEARI

*Utzi negarrez egoteari. Belaunaldi batez eta beraren arazo funsgabeez 1983. urtean Munich hirian jaiotako Meredith Haaf idazle alemanaren azken lanaren izenburua da. Oso gustura irakurri dut. Ezin ukatu atsegin izan dudala *Belaunaldi galdua* edo *Ni-ni-ni belaunaldi* deritzonaren baitan sortutako pertsona batek bere errua aitortu eta norberaren jokabideari dagokion erantzukizunaz jabetu izana, kontzientziaz eta senez, inolako porrotik edo errukirik erakusteke. Meredith Haafek idazteko modu bizkorra, objektiboa eta pragmatikoa darabil, eta aldi berean, isekaria eta umorez zipriztindua, laurogeiko hamarkadan jaio zirenen portaeraz eztabaidatzeko. Idazlearen iritziz, belaunaldi horretako kideok etxe lar babestuetan jaio ziren, gurasoak beldur zirelako beraiek pairatutakoak seme-alabek ere sufritu zituzten. Eta berriro diot, etxeko giro babestuegian hazi ziren.*

Horren eraginez, gaur egungo gizarte, lan eta ekonomia testuinguru ilunean, gazte askok nahiago dute gogo barik eta sortasun betean bizi, asmoz eta ahaleginez jokatu baino, egoera halako batean aldatuko delako esperantzaz. Benetan, egoeraren konponbidea ez da batere erraza eta, zer esanik ez, belaunaldi horretako gazte guztiak ez daude galduta eta ez dira *ni-ni-niak*. Batzuetan, ikasketak luzatu beste erremediorik ez dago; edo eskas ordaindutako beka nahiz lan-praktikei heldu; edo zabor-kontratu eta amaierarik gabeko lansaioei eutsi; edo gurasoen etxean bizitzen segitu, alokairuan bizitzeko eskaintza duinik ez dagoelako. Horiek horrela, pertsonak adorea galdu eta etsita daude badaezpadako etorkizunaren aurrean. Badirudi atzera doazela, aurrera barik. Egoerak eta beldurrak gerarazten dituzte.

Hala ere, badago zer egin. Horixe bera adierazi nahi du idazle gazteak. Gazteok haserretu egin behar dugu, hausnartu eta zalantzan jarri ondo ez dabilen guztia. Erresumindu egin behar dugu gizartearen bidegabekeriaren aurrean, boterearen gehiegikerien aurrean eta sasidemokrazien aurrean. Erantzukizunez jokatu, nor bere etorkizunaren gaineko agintea hartu behar du eta negarrez egoteari utzi behar diogu. Izan ere, inork ez digu ezer oparituko.

Susana Rodriguez
Aikor aldizkaria



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2015eko EKAINA

**EUSKARA ETA
LITERATURA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2015

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA**

A AUKERA

A.1.- IRAKURMENA

ULERMENA (2 puntu)

(Adierazi EGIA ala GEZURRA diren esaldi hauek)

1. Meredith Haaf idazleak bere belaunaldiko gazteak esnarazteko helburuarekin idatzi du.
2. Meredith Haaf idazleak erantzukizunik gabe idatzi du gazteak kritikatzearren.
3. Belaunaldi honetako gazteak txikitan estutasunez bizi izan ziren.
4. Belaunaldi honetako gazte guztiak ikasketak luzatu egiten dituzte.
5. Gazte askok etorkizuna beltza eta gogo gabe ikusten dute.
6. Gazte askok egoera aldatzeko asmoarekin ahaleginak egiten dituzte.
7. Meredith Haaf idazleak zer eginik ez dagoela uste du.
8. Zalantzan jarri behar da ondo dabilen guztia.
9. Gazteek ez dute salatu behar gizartean ematen den bidegabekeria.
10. Gazteek etorkizunari heldu behar diote.

GAIA ETA IDEIAK (2 puntu)

GAIA (Aukeratu egokiena)

- a) Gazteak lanaren bila.
- b) Gazteak eta etorkizuna.
- c) Gazteak eta negarraldia.
- d) Gazteak eta zabor-kontratuak.

IDEIA NAGUSIAK

(Azaldu testuan agertzen diren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak).

A.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)

AURKITU TESTUAN DEFINIZIO HAUEI DAGOZKIEN HITZAK

- a) Adin bertsua duten pertsonen multzoa.
- b) Egoera baten aurrean jokatzeko modua edota hartzen den portaera.
- c) Zuzentasunaren edo inoren eskubidearen kontrako egitea.
- d) Arazo edo auzi bat konpontzeko edo antolatzeko bidea.

A.3.- IDAZLANA (gutxienez 200 hitz) (5 puntu)

GAIA: Gazteak eta ikasketak

Idatz iezaiozu ni-ni-nia den zure lagun bati (ez lanik, ez ikasketarik) eta argumentatu ikasketek eta formakuntzak daukaten garrantziaz.

B AUKERA

B.1.- IRAKURMENA

ULERMENA (2 puntu)

(Erantzun galdera hauei)

1. Nolakoa izan zen laurogeiko hamarkadan jaiotako gazteen bizitza?
2. Zer egiten dute egoera aldatzea nahi duten gazteek?
3. Zer proposatzen du idazleak etorkizunari begira?
4. Zer dela eta *Utzi negarrez egoteari*?

GAIA ETA LABURPENA (2 puntu)

GAIA (Aukeratu egokiena)

- a) Gazteak lanaren bila.
- b) Gazteak eta etorkizuna.
- c) Gazteak eta negarraldia.
- d) Gazteak eta zabor-kontratuak.

LABURTU TESTUA (gehienez 5-7 lerro)

B.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)

(Azaldu ondoko hitz-multzo hauen esanahia)

1. "... gazte askok nahiago dute gogo barik eta sortasun betean bizi ..."
2. "Egoerak eta beldurrak gerarazten dituzte"
3. "... gizartearen bidegabekeriaren aurrean ..."
4. "... nork bere etorkizunaren gaineko agintea hartu behar du ..."

B.3.- IDAZLANA (gutxienez 200 hitz) (5 puntu)

GAIA: Gazteak eta langabezia

Idatz ezazu artikulua bat herriko edo auzoko aldiakari baterako. Nahi izanez gero, ondorengo puntuak erabil ditzakezu zure idazkia garatzeko.

- Lana aurkitzeko kanpora joan behar da.
- Lan egiteko aukerarik egon ezean, ikasketak osatu behar dira.
- Edozein lan mota onartu behar da, beste erremediorik ez baitago.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

EUSKARA ETA LITERATURA / LENGUA VASCA Y LITERATURA

A1/B1 IRAKURMENA (4 puntu guztira)

Bi ariketa mota daude, **ULERMENA (2 puntu)** eta **GAIA ETA LABURPENA (2 puntu)**.

ULERMENA:

Ariketa hauen helburua idatzizko ulermena neurtzea da. Beraz, ariketa itxia bada, hau da, aukera anitzeko galderak edota egia/gezurra erakoak kasu, erantzun zuzenak emango zaizkio zuzentzaileari, zuzendu ahal izateko. Erantzun okerrenetatik ez da zigorrik izango.

Galde-erantzun erako ariketetan, ematen den erantzuna testuaren beraren kopia hutsa denean, galdetzen denari erreparatu gabe, zigortu egingo da.

Zuzentasunari dagokionez, ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akats ortografiko txiki batzuk edo eta gaizki ulertuak sortzen ez dituzten akats gramatikalak egitea ez da zigortuko.

GAIA ETA LABURPENA

Gaia: lauzpabost esaldi aurkeztuko zaizkio ikasleari, horien artean aukeratu dezan bere iritziz testuko gaia laburbiltzen duena. (**Guztira 0,5**).

Laburpena / Ideia nagusiak: Laburpenean, ikasleak sintetizatzeko duen gaitasuna neurtuko da. Ikasleak sortzen duen testuak "josia" behar du. Testuaren laburpena egitean estilo zuzena eta zehar estiloa, guztiak onartuko dira. Beraz, ez da txartzat emango "autoreak dio" edo "idazleak dio" eta horien antzeko egiturak erabiltzea.

"Lehenengo amaren egoera azaltzen du Arantza San Sebastianek, ahaztu duen guztia, gogoratzen ez duen guztia eta iraganaren eta etorkizunaren arteko une horretan geratu dela ama. Gero ulergaitz agertzen da bere amaren egoeraren aurrean eta gaixotasunari uko egiten dio. Azkenik eguneroko bizitzeko bera amaren egoera bat azaltzen du eta amaren harridura amaigabeaz mintzo da, nahiz eta batzuetan oroimenak itzuli egiten zaizkion txiripaz bezala, bat batean." (1'5 kalifikazioa izan zuen)

"Gustu musikalaren formazioak norberaren musika zein den irakasten du eta hau erabakigarria da pertsona batek gustoko eta gorroto dituen musika motak ezagutzeko" (0,75 kalifikazioa)

Ideia nagusiak zein diren esateko orduan, berriz, testuan agertzen diren jarrera, ikuspegi edo argudio-ildo garrantzitsuenak antzemateko gai den neurtuko da. Ideiak ez dira bata besteari lotu behar eta eskema baten modura aurkeztuko dira. Egiturari dagokionez, ontzat emango da bai izen-sintagma egitura erabiltzea eta bai perpaus-egitura erabiltzea ere.

- 1) Michael Jackson aitortu arren, jende gutxi batzuk bakarrik entzuten dute bere musika
- 2) Patxi Huarte eta Koldo Aldabe ez dute bere musika gertutik jarraitu



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

- 3) Michael Jacksonen musika entzutea debekatu diote
- 4) Queen, Elton John... entzutea ere debekatu diote
- 5) Hauek ez ditu entzun beste giro batean hasi zelako musika entzuten
- 6) Berari gustatzen zaiona Tequila du izena

(1 kalifikazioa eman zion zuzentzaileak. Ergatiboak eta gainerako akatsak gorabehera, ontzat ematekoak dira ideia nagusiak emateko erabili dituen egiturak)

- ideologia aurrerakoiarekin konprometitua agertu da beti Mercedes Sosaren musika
- militarrei ez zitzaien oharkabeen pasa eta erregimenak iraun zuen artean debekatuak izan ziren "La Negra"-ren diskoak
- La Plata hirian kontzertua ematen ari zela militarrek kantaria bera eta publiko guztia atxilotu zuten arte
- Parisera joan zen bizi lehenengo, Madrilera hondoren eta diktadura amaitu aurretik, Argentinara itzuli zen

(0,7 lehen zuzentzaileak, 0,75 bigarrenak)

- Mercedes Sosaren heriotzaren berri ematea
- entzule asko izan zituela adieraztea

(Zuzentzaileak ez zion puntu bakar bat ere eman)

Hitz batean, forma kontuez haratago, testua ulertu duten antzematea da helburua. Horrexegatik, *Laburpenean* eta *Ideia nagusiak* adieraztean ere, ez da zigortuko zuzentasunari eta ortografiari dagokienez, ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akats txiki batzuk edo eta gaizki ulertuak sortzeko modukoak ez diren akatsak egitea.

(1,5 guztira).

Laburpenean eta *Ideia nagusiak* adieraztean ere, zuzentasunari eta ortografiari dagokienez, ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akats txiki batzuk edo eta gaizki ulertuak sortzeko modukoak ez diren akatsak egitea ez da zigortuko.

A2/B2 HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu guztira)

Zuzenak diren erantzunak baino ez dira kontuan hartuko.

Atal honetan ere, aurreko ataletan bezala, ortografia edo gramatika hutsei dagokienez irizpide berberak balio dute. Hala ere, eginkizun den ariketaren funtsari dagokion egituran ez da ontzat emango inolako hutsik. Esaterako, ariketa batean perpaus erlatibo bat sortu behar bada, nekez emango da *-(e)na*-ren ordez, *-(e)la* bat.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

A3/B3 IDAZLANA (5 puntu guztira)

Idazlanaren kalifikaziorako kontuan hartuko da ea eskatutakoari zuzen eta egoki erantzun zaion, beharrezko informazioa aukeratu duen, era logikoan ordenatu eta lotu duen, eta hizkuntza baliabide aberatsak, askotarikoak, zehatzak eta zuzenak erabili dituen.

Idazlana garatzeko gidoia ematen denean, gogoan izan behar da gidoiko puntuek lagungarri izan nahi dute ikaslea adarretatik ibil ez dadin eta gaiari hel diezaion. Baina ez da nahitaezkoa puntu guztiak garatzea.

Eskaera-gutunetan edo beste edozein motatako gutunetan ez da eskatuko horrelako idatziek izan ohi duten egitura formala (eskatzailearen izena, NA zenbakia, "adierazten du", "eskatzen du"... moduko egitura, alegia). Formari dagokionez, nahikoa da modu zabalagoan adieraztea zein den eskaria, kexua, edo dena delakoa.

Zuzentzeko erabiliko diren irizpideak eta maila bakoitzari dagozkion adibideak: (adibide pare bat maila bakoitzeko, bat tarte bakoitzeko nota altuenetik gertu dagoena; bestea, tarteko nota baxuenetik gertuago dagoena)

4-5 puntu: (8-10)

- ✓ Testua, eskaturikoari lotzen zaio eta ondo antolaturik dago.
- ✓ Erabiltzen diren ideiak eta argudioak ongi loturik eta garaturik daude.
- ✓ Aukeratu den edukia esanguratsua da gaiaren garapenerako.
- ✓ Erregistro egokia erabiltzen da eta lokailu, lexiko eta egitura sintaktiko aberatsak erabiltzen ditu.
- ✓ Ortografia eta puntuazioa zuzenak dira

" XV. mendean Guttenberg-ek inprenta asmatzeak mesede itzela egin zion garaiko kulturari. Garai hartako idazleak ez ziren negarrez hasi haien lanak mundutik barreiatzean; ordea, izugarri poztu ziren haien ospea eta ohorea handituko baitziren. SGAE handik egotekotan Inkisidoreen antzera arituko zen inprenta ilegalean bila, kononen bat kobratzeko edo!

Internetek kultura goitik behera aldatu du. Lehen soilik idazleek idazten zuten, aktoreek filmak egin, argazkilariek argazkiak egin...Gaur egun jarduera horiek demokratizatu egin dira. Blogger, Youtube, Flickr... bezalako webguneei esker edonor bilakatu daiteke artista edonoiz, horretarako trebezia izanik, eta, oraindik hobea dena, munduko edonork ikusi eta baloratu ahal du nahi izanez gero. Artista bat baino gehiagok jadanik Interneten ikusiak eta kontratatuak izan dira, ospea lortuz.

Kulturaren bultzatzaile hauek dohain egiten dute lan. Ez dute nahi dirutzarik, soilik kulturaz gozatzea eta besteak gozaraztea. Ez da hori SGAE-ren ikuspuntua. Haiei emule-eren bidez kultura hedatzea bost axola. Haiek helburua dirua bereganatzea da, haien patrikak aski betetzea.

SGAE guztiz oker dabil planteamendu hori defendatzean. Beharbada disken salmentatik datorren kapitala, baina abeslarien ospea? Esponentzialki hazten da Interneteko mandoari esker. Ospea eta kulturarekiko axolagabekeria aski erakutsi dute, ondorioz haien hizkuntzara itzuliko dut baieztapen hau, euroetara: Abeslari bat jende gehiagok ezagututa eta benetan ona baldin bada, zenbat dirutza lortuko da kontzertu, telebista, emanaldi



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

edota horrelako jardueran bidez? Arazoa izan daiteke beharbada hain onak ez izatea eta horretaz gu konturatzea nahi ez izatea...

Beraz, SGAE-ko lagunok, ez bota 'so'-rik mandotxoari hark bultzatuko baitu kultura eta artista onak eta diruzaleak bereiziko baititu"

"Kaixo, Natalia

Zelan doa bizitza? Asteak dira hitz egiten ez dugula, potxola! Azterketak gora eta azterketak behera. Baina, beno, laster bukatuko da dena! Bai, badakit oso arraroa dela nik ordenagailua hain goiz hartzea. Berri txarrak ditut. Oso berri txarrak, tamalez.

Aitite gaixorik zebilen, badakizu. Auto istripua izan zuenetik ez du burua altxatu, gizajoa! Hori lehenengo, gero amamarena... Nekez jarraitzen zion egunerokoari, goizero altxatu beharrari, familia eta lagunak irribarre eta 'ondo nagoela, motel!' batez lasaitzeari. Eta gainera artritisiari eta adineko guztien gaitzei aurre egin behar. Gizon indartsua da aitite.

Baina, antza danez, ez guk uste bezain indartsu. Dirudienez, ezin izan du jarraitu eta burmuinak ondo erantzuteari utzi dio. Sendagilearenean egon gara goizean eta aititeri Alzheimerra diagnostikatu diote. Are gehiago, denborak aurrera joan ahala, okerrera doan gaixotasunaren aldaeretako bat. Aitonak ez du egoeraren larritasuna ulertu, baina amari mundua gainera erori zaio. Negarretan deitu dit telefonoz. Emakume indartsua ere bada ama.

Aditzean genuen aitona ez zegoela erabat ondo, zenbait gauza ahazten zituela eta orduak eta orduak eman ahal zituela lasai eta isilik. Normaltzat hartu genuen, dagoeneko zahartxoak bait, eta guk gauzak ahazten bagenituen, zergatik berak ez? Baina gero izenak nahasten hasi zitzaizkigun, non zegoen edo nora joan behar zuen ahazten... Sendagileak tratamendua bidali dio eta hobe daitekeela esan, baina hori momentu puntualen gauza izan daitekeela ere bai.

Ez dakit zer egin, potxola! Aitonak ahazten banau, zer egingo dut? Badakizu zenbat maite dudan aitona eta ze neurritan elkarrekin gauden. Erantzun goiz, behar zaitut.

Musu bat,

Rocio

3-4 puntu: (6-8)

- ✓ Testuak ez du ia akatsik; izatekotan, oso akats txikiak dira, inola ere ez sistematiakoak.
- ✓ Erabiltzen diren ideiak eta argudioak bata besteari loturik eta garaturik daude.
- ✓ Egitura sinpleen ondoan aberatsagoak ere erabiltzen ditu (lokailuak, menderagailuak, etab.).
- ✓ Erregistro egokia erabiltzen da.
- ✓ Ortografia ondo menderatzen da, oro har, tarteka akatsen bat edo beste egin arren

Michael Jackson, denok dakigun bezela, mundu honetan izan dugun abeslari eta dantzari trebea izan da. Nahiz eta ez izan gure kultura berdinekoa eta bere abestiak ulergaitzak izan, Michael Jacksonen musika soinuak gaitasun handia du, guztiok dantzan jartzeko bere musikarekin.

Michael Jackson gaur egun, Elvis Presleik duela urte batzuk izan zuen garrantzi berbera du. Biak izan dira historia musikalaren jaun eta jabe, biak sortutako musikak edo soinuak, bizitasuna eman die gure bizitza sumeei, alaitasun puntu bat eskainiz.

Gizon honek, hots Michael Jacksonek nahiz eta bere bizitza pertsonalean huts egite asko izan (droga kontuetan, bortxaketetan...) musika arloan oso kategori handiko gizona izan



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

da eta bere heriotzak, gure oroimenean hutsi ditu bere abestiak, esate baterako: smouth, criminal.

Baina Michael Jackson ez zen soilik bere abestiengaitik egin ospetzu, baizik eta bere dantzatzeko moduengaitik. Beste abeslari guztiekin alderatuta, honek, bizitasuna ematen zion, bere doinuari, ohol gainean edo antzoki batean, izugarrizko erakustaldiak eginez dantzan. Sale asko lortzen zituen. Kultura guztietako saleak zituen eta gaur egun horrelako gutxi daude, kultura desberdineko saleak edo jarraitzaileak dituenak. Eta talde horiek ere gure historiaren parte izatera pasatu dira. Baina gizon honek miloika eta miloika sale izan ditu beti eta bere heriotza oraindik ez bazen gertatuko sale gehiago izango zituen. Baina denok jakin dugu, Michael Jacksonek azaleko arazoak izan dituela eta egindako operazio guztien ondorioz, bere gaisotasuna txarrera joango zela. Nahiz eta orain bera ez egon, bere sale guztiok oroimenean izango dugu. Zeren eta bere musika doinuak gure bizitzan hutsune handi bat bete bait du.

“Kaixo aitite maitea,

Atzo amak zure gaixotasunaren berri eman zidan, begiak malkoz bustita zeuzkala. Medikiak alzheimerra zenuela esan zizun eta horrekin beharbada zure bizitzaren ikuspuntua bat batean aldatu egin zen.

Egia da bai, duela gutxi zenbait arazo izaten hasi zarela iloben izenak gogoratzeko edo giltzak non utzi dituzun jakiteko. Baina guk ez genuen ezer ikusten edo ez genuen ezer ikusi nahi.

Txikitatik gurasoek zaindu ezin nindutenean zuregana eramaten ninduten jan, lo edo jolastera. Baita igandero gure bidai pribatuetan inguruneke zonaldeak esagutzera eramaten ninduzun. Bertan zure gaztaroko istoriotxoak, lagunak eta baita zenbait neska lagunenganduz hitz egiten zenidan. Zekulako gertaerak ziren. Nik gogokoan ditudana amama esagutu zenuenarena da. Biok hain gazte eta osasuntzu imaginatzen zaituzten etorkizunean zer pasatuko den jakin barik.

Orain egoera antzekoa da baina zerbait gehitu behar diogu, iragana ere ez duzula jakingo. Hala ere, zuk nire izena jakin ezean, hamar aldiz errepikatuko dizut, etxean bainugela non dagoen ez jakitean, haraino eramango zaitut, bizitza osoa emandako hiritik paseatzean kaleak ezagutzen ez badituzu, nik azaldu egingo dizkizut.

Izan ere, zuk behin nirekin egin zenuen, zenekin guztia edo gehiago erakutsi zenidan, bizitzaren dinamika azaldu zenidan eta ahulak lagundu behar direla ere irakutsi zenidan. Hori dela eta, zu ez zaitut alde batera utziko. Badakit gauzak gogorrak izango direla, gaixotasun bat ez da txantxa. Badakit noizbehinka ez duzula ezta ideiarik izango nik nor naizen.

Kontran, arrazoi guzti horiek dira indartsuago egiten nautenak. Nahiz eta nik zure iloba izateari utzi, zuk beti nire aitona izango zara. Haur bat nintzela bizitza erakutsi zidana eta bizitzak berak batzuetan gauza onak eta gauza txarrak ditut. Nire proposamena gaixotasun hau gauza on bat bilakatzea lortzea da.

Horregatik inoiz baino indar handiagoa dut nik zuri behin irakutsi zenidana kontatzeko. Azken finean, gaixotasuna izanda edo ez beti maite egingo zaitut eta pertsona berdina izango zara. Zuk aldatzeagaitik ez gara guk aldatuko, aitzitik, lagundu egingo zaitugu bizitza ezin hobea izan dezazun zuk guri eskaini diguzun bezala.

Besarkada handi bat,

Zure iloba kutuna



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

2'5-3 puntu:

- ✓ Idatzia zenbait akats ez sistematiko du edukian edo forman. Gabeziek, nolahi ere, ez dute oztopatzen testua ulertzea.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen ditu orokorrean.
- ✓ Argudioak edo ideiak urriak dira edo ez daude guztiz garatuak edo errepikatu egiten dira.
- ✓ Ideien eta egituren arteko koherentzia eta kohesio arazoak baditu ere, hauek ez dute ulergarritasuna oztopatzen.
- ✓ Ortografia eta puntuazioan akats txikiak ditu.

Idazten hasi egin behar naizen artikulua Michael Jackson-ri zuzendua dijo. Atzo arratsaldean musika eskolan nabilela, irakasle bat etorri zitzaigun esanez Michael Jacksonen heriotzaz, guk ez genun sinisten orduan etxera iritsi nintzenean eta telebista piztu nuenean, neska bat azaltzen zen bere etxearen aurrean esanez Michael Jacksonek hil egin zela. Notizia hori entzun eta gero, nire sabelatik tximeleta batzuk bezela sentitu nituen eta ain urduri nengoen ordenagailua piztu eta informazioa aurkitzen hasi nintzen, zeren artista hau txikitatik entzun dut eta gustokoa nuen.

Michael Jacksonen musika oso dibertigarria da, baina ez bakarrik hori, baizik eta mota guztietako abestik abesten zituen. Abestien letrak oso politak ziren, ulertu ezker. Idazten zituen abestik signifikatu bat zuten beti, bere bizitza kontatzen zuen abesti horietan, eta esan beharra dago bere bizitza oso zaila izan dela.

Artista honen bizitza oso zaila izan da, batez ere bere aitak derrigortzen ziolako bera eta bere anahiei abestea eta dantzatzea, gero diru horrekin bizi ahal izateko pobreak zirelako. Danak batera abesten zuten eta ondo ateratzeko hainbat ensaio egiten zituzten, baina ensaio horietan oso gaizki pasatzen zuten zeren zerbait gaizki atera ezker bere aitak jo egiten zien.

Urte batzuk pasa zirenean, Michael Jacksonek aukeratu zuen azal txurikoa izan nahi zuela eta bere aldetik hasi zenez abesten eta jendea maitatzen zuenez kontzertuk egiten hasi zen, orduan diru horrekin, bere operazioa ordaindu zuen.

Michael Jacksonek oso abeslari ona izan da, eta Estatu Batuetan gehienbat jendea asko maite zuen, hemen ere baina han askoz gehiago. Abesti onak izan arren, oso dantzari ona zen eta bere pausoak gaur egun jende askok eta askok egiten dute. Bera hil egon arren, oraindik jendea asko maite du eta inoiz ez dute ahaztuko artista on bat izan dalako eta jendea asko maite duelako.

2011ko uztailaren 7a
Alkatea
Padres Paulinos Kalea
Bizkaia 48860

Alkate jauna,

Gutun honen bitartez eskaera bat egin nahi dizugu.

Duela pare bat aste ONG-ko informazio unkiagarria jaso genuen. Bertan, dirua beharrezkoa zutela adierazten zuen. Honegatik, ideia bat bururatu zitzaigun. Zure baimenarekin, musika jaialdi bat antolatzea eta jasotzen den dirua ONG honi eman.

Hau egin ahal izateko, eszenatokia eta pare bat txozna beharko genituzke. Musikariak herriko gazte batzuk izango ziren, hauek ondo jotzen baitute eta ez zutelako dirurik jasoko. Aproposena gazte egunean egitea izango zen, jasoko ditugun irabaziak handiak izango direlako.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Musika jaialdian irabazten den guztia ez da, nozki, ONG-ra joango. Lehendabizi eszenatokiak eta txoznak ordainduko dira, eta jaialdian joko duten musikariei opari bat emango zaie.

Jaialdian gainera, ONG-ko errepresentantea etorriko da han aurkezteko, honela, inor interesatuta egonez gero sozioa egin ahal izango da.

5 talde desberdin joko dute, guztiak ezagunak herrian, eta goizean eskoletako gazte batzuk pailasoz mozorratu eta txikientzat aktuatuko dute (gazte eguneko programan baitago). Guzti honengatik espero den emaitza oso ona izango dela uste da.

Beste barik gure proposamena kontuan izango duzulakoan eta aurretik eskerrak emanez agurtzen zaitugu

1-2'5 puntu: (2-5)

- ✓ Testua ulergaitza egiten duten akatsak ditu.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akatsak egiten ditu.
- ✓ Ulergarritasuna oztopatzen duten akatsak ditu tarteka.
- ✓ Ortografian, arruntak diren hitzetan oinarritzko akats larri batzuk egiten ditu, baina ez sistematikoak.

1-ETIK HURBIL DAGOEN TESTU ZATIA:

Bilbon, 2010eko Ekainaren 10an

Jaun hori:

Ni xxxx naiz eta musikaria naiz. Pasaden astean Interneten sartu nintzenean ikusi nuen edonork nire abesti berrienak jaits ditzakeela ordaindu barik. Momentu hontan, oso kezkatuta geratu nintzen pentsatu nuelako nire karrera profesionala amaituko zezakeela, ez zait gustatzen lan egitea dohainik.

Nahiz eta gustatzen zaidan jendeak entzuten nauela gustatuko litzaidake legearen bidez izango zela. Horregatik, zure laguntza eskatzen dizut zeren eta uste dut arazo honetan neurri gogorrek ipiniko behar direla. Hala ere, ez dut nahi jendeak entzuteari usten nauela neurriengatik. Orduan, ez dakidanez zer egin dezaket zure aholku edo emaitza entzutea gustatuko litzaidake.

Nire ustez, ulertzen dut diskoak garestiegiak direla baina beste lagun musikarien iritsia Internetetik musika jaitea debekatu behar dela da baina, nik uste dut zure taldeak (SGAE) ipin dezake lege bat esaten ordaindu behar dela Internetetik kultura jaiteagatik. Zer iruditzen zaizu?

Zure erantzuna gogoz espero dut.

2,5 ERA HURBILTZEN DEN TESTU ZATIA:

Musika eta gizartea

Gaur egun musika garrantzia handia dauka, baina hau ez da berria iraganan musika jendea mugitzen zuen, baina bakarrik batzuk entzun ahal zuten, normalean dirudun jendea.

Musika daukan arrakasta arrazoi askotik da, adibidez, garraio publikoan joaten zarenean, aspertzen zara, horregatik musika entzuten duzu, mugikorrekin, mp-3, Ipod... eta horrela entretenitzen zara, edo egun txarra izan baduzu musika alaia ipini eta hobeto sentituko zara, musikak orokorrean gure alaitasuna edo gure zoritzarra adierazten du, eta gainera gure izaeraz asko ezaten du.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Denboran zehar musika motak asko aldatu dira eta mota berriak sortu dira, Adibidez, ehun urte atzera joaten bagara musika hori ez dauka zerikusirik gaur egunkoarekin.

Espanian sortu dira beste musika mota, reggetoia adibide bat da.

Musikan mubimendu asko eragiten dute, moda, literatura eta pentzatuko duzue, literatura? bai, zerikusirik asko daukate; literatura normalean (mota asko daudelako) nola den momentuaren biziduna adierazten du, ea demokrazian, diktaduran eta abar gauden hala ez, Gizakion pentsakerak ere adierazten ditu, eta gauza horiek arremak handi-handia daukate, literatura eta musika biak expresioi formak dira eta horregatik historiako parte inportantea eta garrantzitsua da.

Beste arremak daukate, esatebaterako, biak diru asko mugitzen dute urtero, musika disko eta kontzertuekin eta literatura liburuak argitaratzen, baina azken urtean teknologiarekin ez da beharrezkoa diskoak edo liburuak erosi saretik jaitzi ahal dituzu.

Amaitzeko aholku bat: irakurri eta entzun musika egunero

0-1 puntu: (0-2)

- ✓ Testua ulergaitza egiten duten akats sistematikoak ditu.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akats nabarmenak egiten ditu.
- ✓ Nabarmen geratzen dira komunikazio eta hizkuntzari buruzko gabeziak.
- ✓ Nabarmena da eskatutako hitz kopurura ez dela iritsi.
- ✓ Oinarrizko akats gramatikal larri ugari egiten ditu (ergatiboa, komunztadura, konpletiboak...).

Kaixo jaun andreok gutun hau idatzi dizuet kontzertu benefikoa egiteko zure ONG laguntzeko. Nire ustez BEC hona da egiteko leku andia delako. Kontzertu horretan musika desberdin mota entzungo da. Beraz rock izarra adibidez ACDC, KISS edo beste batzuek, hip-hop izarra Eminem eta SOcent, ere bai Euskal Herriko abeslaria gure folklore eta gure musika munduan entzuteko. Baina hori ez da garestia beraz zure laguntza behar dut, uzte dut diru asko irabaziko dugu beraz ez kezkatu.

Dirua irabaziko dugun Afrikara eramango ditugu Malaria zaintzeko eta ikastolak egiteko gainera dirua geratuko badugu iturriak egingo dugu bere herrian ura ez faltatzeko.

Espero dut Aste Nagusian izango dela, gazte asko etortzen delako, ere bai ekarriko ahal dugu talde zahar bat gazteak ez direlako

Barakaldon, 2010ko ekainaren 11an
Egileen elkarteko zuzendariac/Gran Via 56, nº 7
Bilbon

Kaixo, zuzendaria!

Gutun hau idatzi dut arazo bat daukadalako.

Ni beti musikaria izan naiz; baina orain erabaki dut nire lana handitzen. Nire abestiak ospetsuak izan nahi dut. Horretarako; zurekin hitz egin behar dut.

Niri txikitan musikako mundua gustatu zait. Hasieran, dutxan abesten hasi nuen; gero nire familiarekin eta gero, nire abestiak idazten hasi nuen.

Nik ez daukat ospetsurik; baina gustatuko nuke nire abestiak ospetsua daukate.

Zergatik? Deno, guztiek hona, nire musika entzungo ahal izango lukete.

Horregatik, nire abestiek jaitzi behar dute. Munduko jendea nire musika entzun behar dute, ona delako.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Nik badakit SGAE hori egin ahal dute. Nire musika entzun behar zenuke eta gero nirekin hitz egiten duzu. Nik dakidalako, zuri gustatuko zaizu. Ez naiz munduko musikalarik onena baina nire musika ez da txarra.

Nire abesti guztiak saretik jaitsi ahal badira; jende gehiago entzun ahal izango du.

Gaur egun, guztiak Internet daukate, horregatik guztiak ni entzun ahal naute.

Nik badakit musikako mundua oso zaila da baina nire musika pena merezi du.

Gero arte, Egileen Elkarteko zuzendaria.

OHARRAK:

- Gainditu ahal izateko, testua eskatutakoari lotzen zaiola bermatuko da.
- Azterketa bat suspenditzeko dagoen argumentu bakarra hitz kopurua denean, oso nabarmena izan behar da hutsegite hau.
- GOGORATU honako hau idazlanaren emaitza ipintzean:

IDAZLANAREN BALIOA	1-ETIK 10-ERA KO ESKALAN
5	10
4,5	9
4	8
3,5	7
3	6
2,5	5
2	4
1,5	3
1	2
0,5	1



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

A AUKERA

A.1.- IRAKURMENA

ULERMENA (1 puntu)

- Erantzun egokiak:
1. egia
 2. gezurra
 3. gezurra
 4. gezurra
 5. egia
 6. egia
 7. gezurra
 8. gezurra
 9. gezurra
 10. egia

GAIA ETA IDEIAK (2 puntu)

GAIA (Aukeratu egokiena. 0,5 puntu) (A eta B aukeretan)

- Erantzun egokiak: b)

A.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)

AURKITU TESTUAN DEFINIZIO HAUEI DAGOZKIEN HITZAK (A aukeran)

- Erantzun egokiak:
1. belaunaldia
 2. jokabidea
 3. bidegabekeria
 4. konponbidea

Oharra: onartzekoak izango dira bai lema soila, bai hitza deklinatuta ematen duten erantzunak.

B AUKERA

B.3.- IRITZI ARTIKULUA: gidoian ematen diren puntuek lagungarri izan nahi dute ikaslea adarretatik ibil ez dadin eta gaiari hel diezaion. Baina ez da nahitaezkoa puntu guztiak garatzea.